

HIRU HERNANIAR MUNDUKO GUNE SAKONENETAN MURGILDUTA

Andoni Arabaolaza Oruezabala

Marijo Arrieta, Maialen Lujanbio eta Susi Elozegi
PANGEA PROIEKTUAN parte hartzen ari dira.

Ez zuten batere arazorik izan Josu Iztuetaren asmoari baiezkotzea erantzuna emateko. Arras erakargarria iruditu zitzaizenez, bizkar-zorroa prestatu eta abiatu egin ziren. Zortzi hilabetean munduko sei sakonune bisitatu eta aztertu behar dituzte. Proiektua amaitzeke dago oraindik, baina ondoko lerro hauetan lehenbiziko hiru etapen berri emango digute: Heriotzaren Ibarra (Ipar Amerika, -86 m), Eyre Aintzira (Ozeania, -12 m) eta Valdes Penintsula (Hego Amerika, -42 m).

"Pangea. Kontinenteetako sakontasunera bidaia", lema horrekin arlo desberdinetan jarduten duten bederatziz euskaldun -tartean hiru hernaniar- munduko gune sakonena arakatzen abiatu ziren 2000ko irailean. Zortzi hilabetez inguru horien azterketak egiteko asmoa dute; hala nola, lurraldeen geografia, geologia, meteorologia, botanika, zoologia, astronomia eta beste hainbat faktore ikertzen hasiak dira. Sei dira, beraz, proiektu horren helburuak: Heriotzaren Ibarra, Eyre

Aintzira, Valdes Penintsula, Assal Aintzira (Afrika, -155 m), Kaspiar Itsasoa (Europa, -28 m) eta Itsaso Hila (Asia, -395 m). Hain zuzen ere, Marijo, Maialen eta Susi lehenbiziko hiru etapen berri emango digute orain, esan bezala.

Berez, Marijok baieztatu digun legez, proiektuak kutsu zientifikoa dauka. Horretaz gain, baditu, ordea, beste helburu batzuk: bidaiatzea, inguru berriak eta kultura desberdinak ezagutzea eta abar. Orain dela bi urte hasi ziren asmo horren nondik-norakoak finkatzen. Josu Iztueta tolosarra izan da egitasmoaren alma materra, eta hari egokitu zitzaion hautagaien zerrenda antolatzea. Bost gizonetako eta lau emakumeetako izan dira proiektuaren motorra puntu-puntu jarri dutenak.



Nairobitarra autobusa "atseden" hartzen, El Chalteneko bidean (Argentina) matxura izan baitzuen.

PANGAEKIDE HERNANIARRAK

Maialen Lujanbio. Aukeratutako lehendabiziko emakumezkoa izan zen. Nairobotarrarekin eginiko bidaia batean Josu Iztueta ezagutu zuen, eta harreman haiek "erru" handia izan omen zuten proiektuari baieztoko erantzuna emateko orduan. "Josuk Pangea xedearen berri eman zidan eta iruditu zitzaidan oso aberasgarria zela; alde askotatik ondo hornitua. Planteamendu teoriko horretan, arte adierazpenak biltzea da nire zeregin nagusia, baina, era berean, banuen irrika kantuak edo inprobisazio moduak jasotzeko ere. Gero praktikan gauza desberdinak egin ditut", adierazi du Maialenek.

Susi Elozegi. Ustekabez-edo sartu zen proiektuan; azken orduan, gainera. Maialenek aukera hori aipatu zion eta, antza denez, hasieran ez zion gehiegi sinetsi. "Gero Josuk deitu zidan eta, jakina, ezezkorik ezin nion eman. Nire jarduera musikan dago oinarritua. Makina bat asmo nituen, baina gune haietan zaudenean gauzak aldatu egiten dira, besteak beste, denbora asko ez duzulako eta ezagutza maila oso sendoa ere ez nuelako. Bideo kamerarekin ere ibili naiz", dio Susik.

Marijo Arrieta. Josurekin batera, proiektuan buru-belarri murgilduta ibili da. Jakina, ezin zion hutsik egin mutil lagunari. "Nire



Pangeako kideek astirik izan zuten Australian bizi den Javier Iriondo hernaniarra bisitatzeko.

jarduera nagusia alboan izan ditudanen sabelak bete eta goxo-goxo zaintzea da. Horretaz gain, denetarik egin behar izan dut: mekaniko lanak, azpiegiturakoak, masajeak eman eta abar. Ikastaroak ere eman ditut. Finean, unean uneko jarduerak dira", aipatu du Marijok.

HIRU SAKONUNE ETA EZUSTEKO BAT

Ohiko antolaketa lanak burutu ondoren, Pangea proiektuaren kideak irailean pronto ziren lehendabiziko helburuari ekiteko. Berrogei bat egun iraun zuen lehendabiziko etapa hark. Ipar Ameriketako **Heriotzaren Ibarra** (-86 m), han hasi zen benetako lana. Hiruzpalau egunetan, besteak beste, tenperatura eta koordenatuak neurtu, hango animaliak aztertu eta inguruak bisitatu zituzten. Egundoko gatzaga da, zuri-zuria, lehor-lehorra eta bero-beroa; 52°-ko tenperatura jasan behar izan zuten! Ondoren, turismo pixka bat egin zuten: San Francisco, Yosemite, Reno, Las Vegas... Maialen Estatu Batuekin harrituta geratu zen: "Hasieran, gutxien erakartzen ninduen bidaia zen, batez ere duten irudiagatik eta sortu diren estereotipoengatik. Baina harrigarria






Marijo, Susi eta Maialen Eyre Lakuan (-15 m).

zen, hain distantzia "txikian" oso inguru harrigarriak daudelako. Euskal Etxeak ere bisitatu genituen. Finean, lana eta turismoa elkar uztartu genituen".

Hamar egun besterik ez zuten igaro Hernanin, urriaren hogeita zazpirako prest zuten motxila berriro ere. Kontinente batetik bestera jauzi egin zuten, hain zuzen ere Ozeaniara, Australian baitago beste sakonune erakargarri bat: **Eyre Aintzira** (-12 m). Denbora gehiago pasa zuten bigarren etapan, abenduaren hamabian itzuli baitziren. Susi ahoa bete hortz geratu zen: "Australia handia da oso, eta pena izan da oso denbora gutxi izan genuelako gauza asko ikusteko. Sentipen hori izan nuen. Hegoaldetik hasi ginen, hango hiri nagusiak (Sydney, Melbourne...) ikusi ahal izateko". Maialenentzat, berriz, herrialde hori izan da bereziena, eta, era berean, hura egin zitzaion exotikoena. "Nabarmentzekoak diren hainbat ezaugarri ditu. Fauna, adibidez, ikaragarri interesgarria da. Koloreekin ere gozatu nuen, batez ere lurrak zuen kolore gorriarekin.

Bestalde, zerua ezberdin ikusten duzu; ia dena basamortu denez, basamortuaren beste ikuspegi bat duzu. Eskala zirraragarria du", azpimarratu du Maialenek. Ekialdeko kostan barrena itzulia egin zuten, han ere edertasuna da nagusi; izan ere, koralezko arrezifeak ez baitira nolanahikoak. Aborigenekin harrituta geratu zirela esan du Marijok, "oso beltzak baitira eta bisaia oso markatuta dituztelako; zahar aurpegia dute. Baldintza gogorretan bizi dira, ez daude integratuta... finean, elkarrengandik sekulako distantziara bizi diren bi mundu ikusi genituen".

Hirugarren urratsa Hego Amerikako **Valdes Penintsulan** (-42 m) eman zuten. Abenduaren hamalauan irten ziren. Argentinara abiatu aurretik, Brasilgo Iguazu ur-jauziak ikusteko etenalditxo bat egin zuten. Ingurune eder horiek bisitatu eta berehala hartu zuten Argentinara eramango zituen autobusa. "Isolatuta dauden herrixketan izan ginen; asfaltoa ez da hara iristen. Espero ez genuen errealitate bat ikusi genuen,



Susi klimatazio lanetan. Ez zuen aukerarik galdu atzean duen Aconcagua mendia igotzeko.



Paraje ederrak ikusi zituzten Australiako basamortuan.



Valdés Penintsulan baleak ikusteko ez dago arazorik. Ez al da horrela, Marijo?.

eta, beraz, beste behin, estereotipoak apurtu ziren. Hainbat hiritatik igaro ondoren, Valdés Penintsulara abiatu ginen. Ezusteko bat ere izan genuen, mapetan agertzen zen baino sakonera handiagoa baitu penintsulak, han egindako neurketen arabera. Dagoeneko, National Geographic aldizkari entzutetsuarekin harremanetan jarri gara, aurkikuntza hori mapetan agertu behar dela uste baitugu", esan du Susi. Euskaldun jatorriko herritarrekin izan ondoren, Ushuaia, Fitz Roy, Txileko Paineke Dorreak, Bariloche eta beste hainbat alderdi bisitatu zituzten. Susi, adibidez, Argentinara itzuli zen, zain baitzuen Aconcagua mendia (Amerikako garaiena, 6.959 m).

ESPERIENTZIAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Pangea proiektuan parte hartzen ari diren hernaniarrek lehenbiziko hiru etapen berri eman digute dagoeneko. Baina, zer-nolako ondorioak ateratu dituzte? Horixe da luzatu diegun galdera. Susi, adibidez, bidaiatzen ohituta dago. Haren aburuz, taldea izan da proiektu horren osagai interesgarriena: "Asko gustatu zait guztion artean osatu dugun taldea. Norberak zekiena gainerakoei irakatsi die, eta hori oso aberasgarria da. Beraz, bizikidetza oso ederra izan da. Gauza asko ikasi ditut, bai taldean bai lan eremuan bertan. Hiru etapen inguruak arras politak dira, baina ezin dut bat beste biren gainetik nabarmendu. Agian, denborak hala agintzen zuenez, azkarregi ibili gara, baina, hori bai, oso ondo pasa dut".

Marijok, berriz, Kalifornia eta Australiako alderdiekin eta animaliekin gozatu du batez ere. Oso ikusgarria iruditu zaio, baina hizkuntzak mugatu egin duela ziurtatu du. Argentinan, aldiz, bestela izan da: "Herrialde horretan etxean bezala sentitu naiz. Haatik, bidaia

bakoitzak berezko izaera bat izan du. Taldean ere oso ondo moldatu naiz. Kontuan hartu behar da oso ezberdinak garen bederatzi lagun elkartu garaela."

Azkenik, Maialenek azpimarratu duenez, gauza pila bat dastatzeko parada eman diote hiru etapa horiek. Harentzat, oso esperientzia sakona izan da Pangean bizitakoa, guztira bost hilabetez ibili delako etxetik kanpo. "Uste dut denbora gehiago behar dudala "liseriketa" egiteko. Aberasgarria izateaz gain, oso sakona izan da eta gustu ona geratu zait. Gainera, gustu hori denborarekin gehiago definituko dela uste dut. Susi eta Marijok aipatu duten legeaz, talde bizitza oso interesgarria izan da. Finean, proiektu kuttuna da".

